

**BERMEOKO KULTUR TALDEEN 2019. URTEKO JARDUERA BEREZIAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ZEHATZAK**

IN-E 180/04-19

UDAL SAILA: KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA	
<b>INSTRUKTOREA:</b>	Susana Regidor (Kulturako teknikari-koordinatzailea)
<b>BALORAZIO BATZORDEA:</b>	Kultura eta Hezkuntza Batzordea
<b>ERABAKIA HARTUKO DAUEN ORGANOA:</b>	Tokiko Gobernu Batzarra (TGB)
<b>DIRULAGUNTZAREN ATALA:</b>	2019 urteko Bermeoko kultur taldeen jarduera bereziak finantzatzeko programa
<b>KODEA:</b>	KU 14-2
<b>AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRUKOPURUA:</b>	15.000 € (00400-33410-481.01.29)
<b>BERAU EZARRITA LORTU NAHI DIRAN HELBURU ETA ONDORIOAK:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalaren 5. helburu estrategikoa: "Herritarrak kulturaren parte eta jabe izatea"</li> <li>• 5.2. Kultur egitarau indartsua bultzatu herriko taldeekaz koordinazioan</li> </ul> <p>Dirulaguntza honegaz, Bermeoko kultur elkarten ekitaldiak bultzatu nahi dira eta Bermeon, kultura programazino zabal bat eskaintzea.</p>
<b>EPEA:</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Eskariak aurkezteko epea, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean <u>hasiko da</u>.</li> <li>2. Eskariak aurkezteko epea, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 15 egun naturaleko epean <u>amaituko da</u>.</li> <li>3. Justifikazioa egiteko epea, ekintzea egin eta gehienez hiru hilabeteko epean izango da. Urritik aurrera egiten diran ekimenen kasuan, epe mugea 2020ko urtarrilaren 10a izango da.</li> </ol>

**BALORAZIO IRIZPIDE  
ZEHATZAK:**

Taldearen antxinasuna	10 puntura arte
3 urtera arte	2
4 eta 10 urtera arte	4
11 eta 15 urtera arte	6
16 eta 25 urtera arte	8
25 urtetik gora	10

Ekitaldi berezia, urteurren nabarmena ospatzeko	10 puntura arte
10, 25, 50, 75 edo 100	10
5, 15, 20, 30, 40, 60, 70, 80 edo 90	5

Esperientzia, aurretik egindako ekitaldi kopurua	15 puntura arte
3 edizino arte	3
6 edizino arte	6
9 edizino arte	9
12 edizino arte	12
13 ediziotik gora	15

Ekintza edo programa herriko elkarteekaz lankidetzan antolatzen bada	15 puntu
--	----------

Ekintzaren hartzaile kopurua aurreko urtean edo ekintza nagusian	15 puntura arte
100 pertsona arte	4
300 pertsona arte	8
500 pertsona arte	12
500 pertsonatik gora	15

Euskaren erabilera	20 puntura arte
Ahozko erabilera	12
Idatzizko erabilera	8

Norbere finantziazioa edo beste diru iturriak eukitea, udaleko dirulaguntzaz gain	15 puntura arte
Aurrekontuaren %5a eta %20 arte	8
Aurrekontuaren %20a baino gehiago	15

**ESKATZAILEAK:**

Edozein pertsona juridikok eskatu ahal izango dauz, honeek baldintzak beteten badauz:

- Irabazi asmo bakoak izatea.
- Eusko Jaurlaritzako Alkarteen Erregistroan sartuta egotea.
- Egoitza Bermeon eukitea eta bere jarduerarik garrantzitsuenak herri honetan garatzea, kultura arloan. Egoitza Bermeotik kanpo badauka, baina ekintza bat Bermeon proposatzen badau eta interesgarritzat jotzen bada,

	<p>aztertu egingo litzateke.</p> <p>d) Bermeoko Udalak aurretik emondako dirulaguntzen justifikazioak behar diran moduan eta egunean izatea.</p> <p>e) Diru-laguntzea eskatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta izatea. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.</p> <p>f) Identifikazio fiskaleko kodea eukitea eta egunean egotea betebeharriskaletan eta Gizarte Segurantzaz.</p>
<p><b>DIRUZ LAGUN DAITEKEEN PROGRAMAREN AZALPENA:</b></p>	<p>Arlo honetan dirulaguntzak jaso daitezkeen kontzeptuak dira: kultura difusioa eta sustapena egiteko jarduerak eta programak, musika eta arte eszenikoak, bideo emonaldiak, umeentzako ekitaldiak, folklore, ondarea eta arte plastikoak. Baita, kulturartekotasuna bultzatzeko jarduerak eta programak. Adibidez, alkarteen urteurren ospakizunak, lehiaketak, jaialdiak, nazioarteko egunen ospakizunak eta nahiz eta urtero errepikatzen diran, izaera berezia daukien programak, epe labur eta zehatz batean egiten diranak eta alkartearentzat aparteko gastua suposatzen dabezanak.</p> <p>Alkarteek egingo dabezan ekintzak edo programak, diruz lagunduko diranak, interes sozialekoak izango dira. Diruz lagundutako programagaz lotura zuzena daben katerin eta ordezkari-gastuak justifikatzeko orduan, gastu horiek, gehienez be, programaren kostuaren %10a izango dira, salbu programaren batek justifikatzen badau zerbitzuen kontraprestazio moduan diru barik, katerin edo ordezkari-gastuak daukazala, eta beti be, %25a baino gutxiago bada.</p> <p>Ez dira finantzatu ondorengo gastuak, ostalaritzakoak, egonaldiak, luxuzko gastuak, banku-interesak, administrazio-zigorak, merkaturako balioa baino altuagoak diran gastuak...</p>
<p><b>PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:</b></p>	<p>Dirulaguntzak emateko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra.</p> <p>Alkarte batek dirulaguntza eskaera bakarra aurkeztu ahal izango dau, edota ondo justifikatuta badago, eskaera bi dirulaguntza programa honetan.</p> <p>Dirulaguntza eskaria Udaleko eranskinean aurkeztuko da, egoitza elektronikoan, Berhaz bulegoan edo Kultura eta Hezkuntza Sailean, datu guztiak ondo betetu ondoren. Erantsiko dira:</p> <p>a) IFKren fotokopia (alde aurretik aurkeztu ez bada)</p> <p>b) Betebeharriskaletan eta Gizarte Segurantzaz egunean egotearen egiaztagiriak. (Edo Udalarai baimena emon ziurtatzeko)</p> <p>c) 2019 urteko proiektuak, jagokon eranskinean zehaztuta.</p> <p>d) Alkarteko estatutuen fotokopiak eta zuzendaritza batzordeko kideen izendapena eguneratuta, baldin eta lehenago aurkeztu ez badira Kultura eta Hezkuntza Sailean.</p> <p><b><u>Akatsak zuzentzeko epea</u></b>          Dirulaguntza eskarian ez badira eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun eukiko dauz akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen danetik kontatzen hasita. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da.</p> <p><b><u>Dirulaguntzak emateko prozedura</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Dirulaguntza mota honeri aplikatu dakiogeen erregimena hau da: prorrata.</li> </ul>

- Prorrata danean, aurkeztu diran eskari guztien artean banatuko da aurrekontuko dotazio guztia, salbuespenakaz, kontutan hartuta, modalitatearen arabera, lortutako puntuazioa, moduloak edo esleipen finkoa.
- Prorrata sistemaren bidez emongo dira, puntuazioaren arabera, eta aurrekontuaren % 80a arte, honako salbuespen honegaz: 1.000 € arteko aurrekontua daukan programak, eta 50 puntutik gora lortzen badau, aurrekontuaren %100a eskuratuko dau, esleipen finkoagaz.
- Eskatzaile batek ezin izango dau 5.500 € baino gehiagorik jaso.
- Aurkeztutako proposamenek gitxienez, 30 puntu lortu beharko dabe dirulaguntza bat jasotzeko.
- 50 puntutik gora jasotzen dabezan eskariak, aurrekontuaren %80a arteko dirulaguntza lortu ahal dabe.
- Eta 30 puntutik 49 puntura arte jasotzen dabezan eskariak, aurrekontuaren %70era arteko dirulaguntza lortu ahal dabe.

### **Dirulaguntzak ordaintzea**

Bermeoko Udalak aurretiko ordainketak egingo dauz. Dirulaguntzearen %80a dirulaguntza esleitu ondoren ordainduko da eta dirulaguntzearen beste %20a, ekintzea justifikatzen danean. Kontuan izan behar da, emondako kopuruak, justifikazioagaz batera berrikusiko dirala. Dirulaguntzea ondo justifikatzeko, eskaeran agertzen dan aurrekontuaren %100a fakturakaz justifikatu behar da, nahiz eta dirulaguntzearen kopurua txikiagoa izan.

Udalak justifikazioa ondo aztertuko dau eta halan bajagoko, dirulaguntzaren %20a, hau da, azken zatia ordainduko dau. Hasierako aurrekontua eta justifikatutako gastua gitxienez %80an bat etorri beharko dira, bestela, aurkeztutako justifikazioari jagokon benetako dirulaguntza zein dan taldeari azalduko jago eta beharrezkoa balitz, dirua itzultzeko eskatuko deutso.

Justifikazio txostenak Kultura eta Hezkuntza batzordeak aztertuko dauz.

### **Dirulaguntzearen onuradunen betebeharrak**

1. Bermeon, paneletan ezin dira 40 kartel baino gehiago jarri. Hormatan be, ezin izango da kartelik jarri.
2. Udalari jakinarazotea beste dirulaguntza batzuk hartzen badauz eta honen zenbatekoa (danen artean ezin izango dira %100 baino handiagoak izan).

### **Dirulaguntzearen justifikazioa**

1. Dirulaguntzearen onuradunak 2019. urteko diru-laguntzearen justifikazioa egin beharko dau, egoitza elektronikoan, Berhaz bulegoan edo Kultura eta Hezkuntza Sailean, Bermeoko Udaleko dirulaguntzen oinarri orokorren 17. artikuluan jasotzen dan moduan, diruz lagundutako ekintzea egin eta gehienez hiru hilabeteko epean. Urritik aurrera egiten diran ekimenen kasuan, epe mugea 2020ko urtarrilaren 10a izango da.
2. Justifikaziorik egiten ez danean edo egindako justifikazioa nahikoa ez danean, jasotako diru-kopurua itzuli egin beharko da, justifikatu ez dan zenbatekoaren proportzioan, berandutzeko interesakaz batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluko 1. idatz-zatian dagoan moduan.
3. Ebaluazio-memoria Udaleko eranskinetako edukiaren arabera egingo da:

	<p>egindako ekintzen garapena, partehartzaileak, balorazioa eta balantze ekonomiko osoa.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>4. Ordaindutako faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak. (Udaleko Berhaz bulegoan egiten dira). Egiaztapena egin eta gero, originalak bueltatu egingo dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, horreek ez badabe balio diru-laguntzearen helburuak lortzeko.</li> <li>1. Fakturretan enpresaren izena, IFK edo IFZ, faktura zenbakia, data, kontzeptua, zenbatekoa, BEZa eta alkartearen datu fiskalak azaldu beharko dira.</li> <li>5. Tiketak onartuko dira, beti be, datuak zehaturik agertzen badira eta justifikazio osoaren %25a baino ez badira. Autopistako tiketak, garraio publikoko tiketak eta aparkalekuetako tiketak onartuko dira, beti be, aurkeztutakoak helburuagaz bat datozenean.</li> <li>6. Erabilitako publizitatea aurkeztu beharko da, aurretik ez bada aurkeztu. Horretan Bermeoko Udaleko logoa agertu beharko da.</li> </ol> <p><b><u>Akatsak zuzentzeko epea</u></b>                  Justifikazioan ez badira eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun eukiko dauz akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen danetik kontatzen hasita.</p>
<b>PROGRAMA HAU EGITEKO AURREIKUS DAITEZKEEN KOSTUAK DIRU LAGUN DAITEZKEENAK:</b>	
<b>JARRAIPEN ETA EBALUAKETARAKO ADIERAZLEAK:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diruz lagundutako ekimen kopurua, gitxienez 10 izatea</li> <li>• Urtero, diru-laguntza jasotzen dauan ekimen barri bat izatea.</li> </ul>
<b>HONEKIN LOTUTAKO AGIRIAK:</b>	
<b>GENERO ERAGINA:</b>	Bat ere ez
<b>1/1982 LOaren arabera argitarria ez den emakida:</b>	Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoa. EZ